



BATXILERGOAN ETA LANBIDE HEZIKETAN EUSKARAZKO IKASKETAK SUSTATZEKO KANPAINA

Guraso horiek:

Aurten zuen seme-alabek etorkizunerako urrats garrantzitsua emango dute, eta, horretan laguntzeko, “Nahi dudalako!” kanpaina aurkeztu nahi dizuegu.

Kanpainaren helburu nagusia da DBH euskaraz egin duten gazteek hortik aurrerako ikasketak ere euskaraz egitea. Horretarako behar duten informazio guztia www.nahidudalako.eus webgunean duzue ikusgai. Bertan, Bizkaian dagoen hezkuntza eskaintzaren berri izango duzue. Gainera, etorkizunera begira, Unibertsitatean zein Lanbide Heziketan dauden aukeren berri ere ikusgai izango duzue webgunean.

Gerta daiteke euskaraz ikasten jarraitu nahi izan arren, eskaintza gaztelaniaz bakarrik egotea. Hori gertatuz gero, euskaraz ikastearen alde lan egin dezakezue, ikastetxeko arduradunekin hitz eginez edota zuzenean Hezkuntza Sailera joz.

Zuen seme-alabek ikastetxeetan kanpaina honen berri jasoko dute. Horretarako, hitzaldi batzuk antolatu ditu Udalak, zeinetan euskaraz ikastearen garrantzia nabarmendu, eta www.nahidudalako.eus webgunean zer aurkituko duten azalduko zaien gazteei, Elena Caballero “La Basu”, Jon Gomez Garai eta Karmele Gisasolaren eskutik.

Gainera, webgunean sartu eta inkesta betetzen duten gazteek hainbat sari irabazteko aukera izango dute.

Informazio gehiago behar izanez gero, galdetu herriko euskara atalean, eskualdeko Berritzegunean edota Hezkuntza Sailean.

EUSKARA ATALA



@basauritarrak

